Euskel-Etxala

EUZKADI GUSTIKO IZPARRAK URRUTIZKIÑEZ TA BIDAIZ IDAZKIYAK KIRIKIÑO'RI

Emakumea eta Aberria

Emakume-Azarri-Bazkuna

Gizonezko artean azarri bazkun bat erdiratzeko asmoz, "Tabiratarra"-k EUZKADI'n idatzi izan duana irakurrita, askotan ikusi gera oldosten, orretarako Bazkun aundi emakume artean ere on aundia egiteko, eta ondorenez Aberriari batta egiteko.

Ara geuk ipiñiko genduken araudia:

1.a Atala.—Egunero sarritan otoi au egitea: "Josu'ren Biotz maitagarria, gaizkatzaku euzkoen erria".

2.a Atala.—Illean Jaunartze bat gutxienez Aberri-aldez eskeintzea.

3.a—Iñoiz ere jantzi nabarmenik erabilli eta batez ere txadonara bear dan era eta lotsaz jantzita juatea.

4.a—Ezetariko dantza loturik ez egitea.

5.a—Gabaz, gizonezkoakin bakarrik ez ibiltzea.

6.a—Euzkel-ingi onak zabaltzen alegintzea, eta al guzia abei laguntzen alegintzea.

7.a—Birao egiten iñor entzutean, erriko gauariai abek salatzea.

Pozpozik ikusiko degu asmo onetzaz beste beste iritzirik eman nai ba'du; edo bat edo enbat ugaldu edo berritu, edo Bazkuna nola eraldu, edo abar.

Biartean neskatxak, alegindu zuen errian bazkun onetan bildu nai dutenen izenak biltzen; eta au egitean bidaldu Kirikiñori, emakumien atal ontan argitaltzeko, berton elkar aituko gera-ta; ba elkar ikusi arte, elkarri irakatsiaz eta lagunduaz on bidea lortuko degu geuretzat eta Aberriarentzat.

AZARRI-ZALE

Ama baten umeak berau gana beartuak daude naiz seme naiz alaba izan. Aberriaren semeak be, berau gana beartuak gagoz, euzkeroak lez emakumeak be.

Jangintza

BITS-DUN ARRAUTZ-AIA (CREMA DE ESPUMA)

Lenbizi irakatsiko dizudana gozokia irabiarle. Gozotik asi beintzat. Ara ba nola egiten dan arrautz-ai au:

Pertz baten ipintzen dira 125 aztaki (gramo) asukre, 40 iriña, eta lau arrautza zuringo. Ondo-ondo nastuta gero, botatzen zayo gutxika-gutxika kuartillu bat esne lekatxo usaitsuz (vainilla) egosia, eta ondo illtan ipintzen da, gelditu gabe eragiñaz nastu dedin arte.

Beste ontzi baten nastatutzen dira zurinak ondo gogortu arte, eta orduan aiaz batu.

Arrautz-ia au izaten da txigorrak betetako, eta urrengoan esango degu abek nola egiten diran.

NEU

Aberriari egingo dotsagun oparirik onena, geure onoimena ixango da.

Mari-Txoroak

Zerk eman lezayoken bati, idazteko gaya!

Idazkortza eskuan artuta, mai-gañean detan ingi zuriari begira emen nengon nundik ekin ez nekiala. Emakumien atalerako idazkai bat egiteko eskatu didate. Baña nik zertzaz egin idazkai ori?... Bai da emakume artean ingietara eraman leiken garrantzidun gairik? Bai noski; naiz ta ni oyek arkitzen yayoa izan ez.

Emen negon ba irakurle, zertzaz idatzi burua puzkaten; eta orra nun etorri zaidan, aspaldi ikusi ez nuan, txikitako lagun bat, ikertu egin bear nabela-ta. Egiya esaten dizut; iya ezagutu ere ez det egin, ain aurkeztu zait ezezaguna, bere masail, betondo, ezpain, txima, gusti-gustia margoztuta. Len ille illuna zuan, orain oriya; len arpegi beltxaran zurbilla, orain zuri-gorria; bekain, begi-bitarte, ao, guzia dakar len ez bezelakoa. ¿ta nork ezagutu?

Ala ere ez naiz onezaz batere arritzen; onen gisako emakumeak asko eta asko dira gaur, eta ez gutxi euzkeldun artean ere. Ara ba zerk eman didan idazteko gaya: nere lagunaren kopiñ antzeko arpegiak; edo obeto esateko, gaurko emakume asko eta askoren txorakeriak.

Baliteke norbaitek esatea ere, orain bezela len ere, antxiña ta antxiñagoan, gizaldi guzietan, emakumea izan dala, irtirin, apain-zale, eta eder-naikoa. Au egia da bai; baita egi aundiagoa, orain bezela len, eta len bezela orain, ez dala beñere izan orrelakoa emakume onbidetsu eta Jainkozalea; eta onek ez du batere ondo esaten apain-zale eta eder-naikoentzat.

Ez dago oldostu baño: emakume onbidetsu, etxekoi, on-onik, beñere ez, edo oso banakaren baten ikusi oi da (ikusten ba'da) apañegi eta nabarmen jantzita; ezta len esan dedan bezela, kopiñ antzera arpegia margoztu ta orrelako gangar usañez; eta onela azaltzen ba'da, emakume orrek on-ona izateari utzi diolako da. Ostera, ez dago begitu baño nolakoak oi diran orrelako irtirin eder-zale oyek: asko eta asko nolabaitekoak; geyentsuak gangar batzuk, eta euren artean danik eta onena ere txoro aundi batzuk.

Izan leike bat, asmo txar gabe, gogo-gaizko gabe, apainzalekeriak artua egotea; baña apainzalearen asmorik onena, eder azaldu nai izatea da, eta au, berez, asmo guzietan txoroena da.

Ez det esaten besteak oi ez bezela jantzi bear geranik, guzien parregarri gerala; ez, ori ez; baña jantzi geinke ondo, egoki, nabarmenkeri gabe; geure apainketa geyegiz likizkeria ereiten juan gabe; ba auxe da geyen bat gaur emakumeak egiten duana-ta. Eta ez gutxien guk, euzkeldunok.

Apainzalearen asmorik onena eder-azaldu nai izatea ba'da, eta asmo au berez ain txeroa, ez gera Mari-txoro gutxi Euzkadi'n ere!

A zer itxaropena aberriarentzat!

MIREN LORE

IZPARRAK ETA

—x—

Euzkel-Ixenak

AZKOITI'N.—"Miren Begoña", Dierez'tar Joseba Mirena eta Zinkunegi'tar Pantzeske'ren alabari.

MAÑARI'N.—"Miren Bitore", Luztarrio'ko Goiti'tar Pantxeska (Patxi)-ren alabeari.

Zorijonak ume ta gurasuai. Oixe egin biar dabe danok, euzkeraz ixenak ipiñi. ¿Euzkerea ezta ba gure itz-egikerea?

Euzkeraz Gogo-Iñarkunak

Bilbao'n

Emengo neska-otsein euzkeldunentzat gaur asten dira Gogo-Iñarkunak (Ekersisio Espiritualak) Josu-Biotzaren elexan arratzaldeko lauretan, eta datorren domeka goixian amaituko dira. Askondo'tar Ander Aba josulauna artezkari ixango da.

Goixetan seiretan, eta arratzaldetan lauretan.

Gogo-Iñarkun oneek antxiñatxutik egiten dira Bilbao'n, josulaunen (jesuiten) elexan, emakume asko, otsein ta ostantzeko, urtero elduten dirala bertara.

Izparrak bidaiz

—x—

Donosti

¡A ZER SARIA!—Apirka'tik, Abd-el-Krim'en menpean 17 illabete igarota, donostiar gudari bat etorri da. Andik onera etorri al-izateko, berak dirua billatu bear izan du, an txanpon bat ere eman nai ez ziotelako.

Laguntza ori bera, Gobernuaren aldetik, beste gudari askok artuko zuten.

Orrelako egikerak oso-osorik argazten dute gu "zaintzen" gaitun Laterri ori.

ESKERRAK.—EUZKADI, izperringi eder onen egilliei gure txalo beroak bialtzen dizkiegu egiten duten ekiñagatik bialduaz Gipuzkoa'ra gure egunerokoa beste edozein bezin goiz.

Emendik aurrera, EUZKADI ez erosteko aitzakirik, abertzaleak ez dezakete izan.

IZPER-BELTZA.—Ostegunean, il zan Karrera'tar Josu apaiz euskeltzale ospatsua. Gertaketa onek asko arritu gaitu, bada bere gaztetasun eta osasunak ez zuten orrelakorik uste-azten.

Udala'k emen dauzkan Euskel-ikastoletako irakaslea zan eta gañera gure izkuntzaren alde lan asko egin du EUSKAL-ESNALEA'n, ARGIA'N eta abar.

Gure irakasle izandakoaren sendiak artu beza gure tamal-agur biotzezkoa.

Goyan bego.

ERES-BATZA.-Emengo Udala'k uri-eresbatza zarberritzeko arabakia artu du.

Bai zegon bearra.

BELGUNTZAK.—Deun Bingen eta Artzai-Onaren elizetan Belgunde euskerazkoak asi dira goizeko ta arratsaldeko 6½-etan.

Izlariak, bat Karmeldarra ta bestea Buruñurduna, oso onak dira ta erabiltzen duten euskera garbi ta ederra da.

Itzaldi orietara joatia, abertzalien biarkuna da. Bete dezagun bada.

JOXEMARI'TAR

Mañari

EUZKEL-IXENA.—(Bere lekuan dua).

JUAN ETORRI—Bilbao'tik etorri da Santurde'tar Bingene neskatillia.

Emen egun batzuk eginda Gernika'ra juan da Ruy-Wamba'tar Pilomene.

Gastelu-Elexabeitia'tik etorrita emen egun batzuetan egon da Goiti'tar Kauldi abadia.

GEXORIK.—Alan dagoz Goti'ko Larrea'tar Ixidor, Axpe'ko Arteaga'tar Sabintxu euzkel-ixenduna, eta Eleixakuak artuta Goiti'tar Pirmin, Durango'ko Garamendi anayak emen dauken arrobi edo kanterako katapasa.

Danoi opa dautsegu arin osatu daitezala.

¡¡ANILLUA!! — Zibillizauta dagozan erri gustijetatik botata dagon ekandu txar ori, ona emen nun eta Mañari'n agertu dan.

Neskatuen ikastolan, astelenetik asita euzkeraz eiten dauenak ikastolan anillua ipinten dautso maistriak, eta kastigetan dauz "recreo"-ra edo olgetan urteten itzi barik eukijaz.

Au lotsagarrija da. Emengo alkatiak eta, neure ustez, maistra orri aurreztik esanda, ekandu ori itzi gura ezpa'dau, salatu edo denuntzijau ein biar dabe Diputaziñora, ta iragarri izparringi gustijetan.

Maistra ori iruen bat urte dago erri onetan, danok euzkeraz egiten dogun ezijan, eta euzkeraz tautik be eztau ikasi, edo buru txarra edo gogorrik ez, dana dala, ezta kapas ixan bera bertoko umien berbetia ikasteko; eta ¿andija ezta umieri eskatu biar dautsiela bere berbetia jakiteko ta ostantzian kastigau? ¡Orduen bera be kastigau egin biar geunke, geure berbetia eztakijelako!

Neure neskatuari ukututen badautso ba, errekonde!...

ERIJOTZA.—Bilbao'n "Hermanitas de los Pobres" zarr-etxian il da emengo alabea zan Aldekoa'tar Juliana, beñolako Juan Krus'en alarguna. Luzarotxo gexorik egon biar ixan dau, ta ill onen lenengo egunetan il zan. Jaungoikuak zeruan euki dayala.

TXINUELO

Otxandijo

GARISIMAN GAGOZ.—Ildegian (kanposantuan) bitxabal aldeko orman idatzita dagon esariak (sententziak) diño: "Lo que sois, fuimos nosotros; lo que somos, seréis cuando menos lo penséis". Antxiñako idazti batetik atarata dago. ¡Euzkeraz ba'lego!...

Udaletxian (Ayuntamentuan) dagon eguzkizko erlojuen, burdiñazko orratzaren gerezpeian jausten dan lekuan esakun au dago idatzita: "Dies nostri sicut umbra transeunt". Ori lako erlojuan ipinteko betekoagorik ezin billatu lei.

Diñoe idazkun bi orrek praille-irakaslari batek idatzi ebazala. (1)

ERLOJUA.—Berrostegieta'tar Benin, erramentari azkarra, erloju-ipintzalle ona izan-arren erlojuaren orratzak egunokaz geldi dagoz. Au gora-bera, bere orduak tapa-tapa joten dauz. ¿Egixa ixango eteda ba antxiñako bertsua?

Benin'ek egin ei dauz
egunak kanpuan
erlojuai tiraka
orduan-orduan.

EZTIA.—Aurtengua alan-olako ezti-urtia da. Batzuk geijago beste batzuk baño, baña batek bez "asko" esateko bestian.

GEXO.—Audikana'tar Txomin bigarren alkatia atzera oeratu da bere gexoa dala-ta. Osatuko al zara ainbat ariñen.

ZAURITURIK.—"Illuntxo" ta "Ardantegiko Sosua" erren (cojo) dagoz. Oiñian ixan dabien zauria soldu egin yake, Bixer-kentzalle bi onek gexo luzia ba'dabie emen ixango dira bixer ta ulle luziak. ¡Gure itxuriaren itsela! (2

IXELIE.—Itz au entzun notsan erramentari bati. Itandu notsan zer esan gure daun eta auxe erantzun eustan: "Gabijen biarra egiten daben gizonari deritxo ixelie". Ni neu enua arnasiaren zaratarik be ataraten arazo onetzaz. ¿Berba barrije, zarra ala lelokerien bat da? (3)

ATZERA BE.—Zure idazkiak eztagoz ondo idatzita. Zuk idatzi biar zeunke au, ori ta bestia. ¡Zu lez ba'nego, artuko ba'neu lumia, ori jakin ba'neu, esan ba'zendu!...

¡Atzera be zeregiña artu dozube arrayuok! Esan neutzuben len be: ni neure buruaren jabe nazala, nik neure lumiaz neuk gura-gura dodana egingo dotala, zuben "au dala edo eztala" esanari begira egon barik.

Erriko kanpantorria urrengorrizkua ba'litz, ta neuria ba'litz, ta arrastauko ba'neu, ta... auxe da lenauko esakuna: "Ba'lego ta ba'litz alkarren onduan dabiltz" Zubena egin ba'neu, berba asko ezebez egiteko... ¡ar ezebez! (4)

LOLTARJIJALOL

(1) "Zarienak ixan giñan, garienak ixango zarie gitxien uste dozuenian" eta "Gure egunak gerizea lez duaz", ipiñi ixango eban pralle arek otxandijoarrentzat esakun orrek idatzi ba'leuz.

(1) Baña... ¿eskuakaz ala ankakaz bixerrak kendu ta uliek ebaiten dautzuez?

(3) Itz ori antxiñakua da. Lenauko burdin-olaetan "ijelia" ixaten zan buru edo maixu. Neure aitite bata, Abadiño'n Muntxaraz'ko olan ijelie zan. Mogel'ek be baidakar itz ori ta Azkue jaunak be bai bere iztegijan.

(4) Polito erantzunda, Loltar.—KIRIKIÑO.

Azkoiti

EUZKEL-IXENA.—(Beste lekuan dua)

"EUZKADI".—Gure izparringia zortzi ta erdietan eltzen zaigu, Donostikoekin batera. Oso pozik gaude abertzaliok.

NASKALDIA.—Gaxorik dago "Kuku-Erri" euzkel-idazlia; baita Elizakuak artuta Esnal'tar Sekunda. Osasuna lenbailen Jainkoak eman diela.

ARPIDEA.—Enbeita'ren aldez Euzko-Batzokian jarria dago. Gure maitasuna erakutsi biar diogu azkoitiarrak, askotan bere lanak utzita gure artera etorri zala gomutaurik.

ABERTZALIAK.—Berpizkunde egunerako Bilbao'n egingo dan Jel-batzarrera juan biarra degu al dezakegun gustiok. Eman izenak Jel-batzokian lenbailen, ill onen amaseirako biali biar da ba zeinbat eta zeintzuk juango diran.

OROBATASUN EGUNERAKO.—U. B. B.-k izendatu du batzordeko Izagirre'tar Pantzeska, eta Jel-batzoki'ko Bazkintza'k Larrañaga'tar Koldobika.

GOGO-IÑARKUNAK. — Mutillentzat bakarrik illaren amabian asten dira txadon nagusian, txonizlari Aita Laskibar josulaguna dala.

EZBIAR BAT.—Jun dan asteazkenian arratzaldeko bostetan Zabaleta-Kamiñoko deritzan basetxeko amabi urtedun mutikuari, tximist-indarra dakarren paluari igoitzia gogoratu zitzaion, zoritxarrez buruaz ikutu zionian bat-batian illik utzirik. Orra zer tamala gurasuentzat.

EGI-ALDE

Durango

Aspaldian, amama makalik izan dodala, bera zaintzen, uri onetatik aldenduta egon nazala, emengo barririk EUZKADI'rako ezin bialdu izan dot. Uri onetara biurtu nintzan egunean, gaur lau, neure adizkide aundi batek izpar batzuk emon eustazan ta, gaur, KIRIKIÑO'ri idatziteko asmoa artu dot, bizirik nagoala esateko ez ba da baño be. Oingo, baten batek, lekaime sartu nintzala edo, onenean, eskondu nintzala uste izango eban. Baña, ez bata ez bestea. Lekaimetzat ez nabe nai ta eskontzeko senargairik ez daukat. Aurreralio, ain kokolo samarra ez ba litza, zugatzak alde batetik bestera erabilli ordez, mutillak alan erabilliko leukez, ta bat edo bat geure eskontzeko-gogoko amoan jausi be... ainbaten eingo litzake; baña, ezertarako asmo onik ez daukala, putza ta izerdia dariola, auzotarrari asarre eraiten, or dabill. ¡A gatzbako aundia! Bera, len baño zer edo zer lodiago ete dauen nago. Beintzat ezpanak lodiagoak dituz ta... ¡disdisera bat egiten deutze! Koipe-lustre bat dirudi.

Entzungo zendun, KIRIKIÑO, zelan emengo Udaleko ziñegotziak, endorearen morroiak, aitzen da, gutarrak ez, Kurutzeaga'tik zugatzak atara ta Eskurdi'ra eruatea erabagi eben. Kurutzeaga'ko biztanleak, erabagi au txartzat artu ta, Udalari, idazki bat, biztanle guztiak izenpetuta, alakorik ez egiteko eskatzen, bialdu eutzen. Baña, gure KAIXER'tarrok, gogor egin bear zala ta, euren asmoa, aurrera eruan dabe. Kurutzeaga'ko biztanlearen artean, jupari bik idazki ori izenpetu eben ta gure udalak ziñegotzi bi, jaupari biaren aurka, Gotzaña'gana juateko, izentau ebazan. Ta esan eta egin. Ostikoka ez ebezen artu, an, alakorik egiteko oiturarik ez dauelako, baña, bai, belarriak ondo berotuta, bialdu. Gotzaña'gana juan aurretik, bertako "Arziprestea'gaz egon ei ziran eta, onegaz ezer ez ebelako lortu, Gotzaña'gana jo eben. Oiñ, onen gandik ezer ez daukela ta, Aita "Santua"-gana juatea dauke!

Kurutzeaga'ko zugatzen arazoa zala ta ez zala, beintzat, bertako burrundadea urriñera eldu zan. ¡Ango zaratea! Nik ez neban entzun; baña, esan deustenatik, Bizkai guztiko erleak batzeko be, alakorik ataratea naikoa izango litzake. Erle artean be, Kurutzegan igaro dana igarotzen da, Geienak onak eta estitzuak izaten dira, baña, batzuk, eztia jan egiten dabe eta, ezti ordez, zera...egin. ¿Zer egin? Zeregintxuk daki.

Diñoen letz, zugatzen gora-bera ori ainbat "milla peseta"-koa izango ei da ta "Presupuestoetan consignaziñorik" ez dao. ¡Ori dok beste bat! ¿¡Au da, gero, kale-kantoietan iminteko antzerako "Administración modelo?" ¡Lodiagorik, ondiño, urtengo dau! Gotzañaren erantzuna, kale-kantoietan, ¿zergaitik iminten ez dozue? Uri guztiak, ziñegotzi bi bialdu ziñuzela, daki: zer lortu dozuen jakin bear leuke. ¿Ezetz egin?

Onek gauzokaz Kurutzeaga'tarrak sututa dagoz. Ori, geienak, Aurreralio'ren alderdikoak direala! Barriro, be, gure Aurreralio maite-maite au, gau ta egun zaindu bearko dabe. Gabez, be, zelan, gero! ¡KAIXERRA ba litza letz! KAI...XERRA ez da izango, baña, ¿KAI...KOA?... ¡Upela lakoa!

ARGIDI

AGUARDIENTES Licores finos y Jarabes
ACEITES FINOS DE OLIVA
JOSE DE GALARZA Y URALDE
(Sobrino de E. de Uralde)
Fábrica, almacenes y oficinas:
Castaños, 34. Teléfono 906.
Despacho: Carnicería Vieja, núm. 21

AUTOMOVILISTAS
No reparéis vuestros coches sin antes consultar precios en el GARAGE y TALLERES *UNIVERSAL*, de Manterola y Azumendi, Ercilla, 4.

UGARRIZA. - SASTRE
Lotería, 1, tercero.—BILBAO

ACCIDENTES DEL TRABAJO
Todas las obligaciones de la nueva *Ley de Accidentes* garantiza en absoluto, en las condiciones más ventajosas y económicas, la
Sociedad de Seguros
"LA VASCO - NAVARRA"
Solicítense sus ofertas al
Representante:
MANUEL DE OZAMIZ
Bailén, 5 y 7 pral. Tel. 174. Bilbao.

FORCETOL
GRANULADO SOLUBLE TONICO RECONSTITUYENTE
A BASE DE KOLA. QUINA. GLICEROFOSFATOS Y CACAO
INDICACIONES Convalecencias. Gripe. Neurastenia. Corazón
Debilidad general Depresión cardiaca etc.
DE VENTA: FARMACIAS Y DROGUERIAS - MUESTRAS GRATIS AL
Depositario A AMBROA. Apartado 205
BARCELONA

AL ALCANCE DE TODOS
Damos 36 MESES DE PLAZO para las máquinas de escribir "WOODSTOCK", y 20 MESES para gramófonos, relojes, bicicletas, prismáticos, escopetas de caza, cámaras fotográficas, cajas de caudales, bureaux, etcétera, etcétera.
SOCIEDAD HISPANO-AMERICANA
Plaza Nueva, 3. — BILBAO

UNDERWOOD

EL CAMPEÓN MUNDIAL DURANTE 17 AÑOS CONSECUTIVOS
Admirable por su sencillez, rapidez, pulcritud y solidez
50.000 referencias en España
Sucursal en Bilbao: LEDESMA, 30
E. M. GUILLERMO TRUNIGER SA
Apartado 298. Barcelona.

Compañía Naviera
SOTA y AZNAR
BILBAO
LINEA DE URUGUAY Y ARGENTINA
SERVICIO MENSUAL RAPIDO
Hacia el 18 de marzo saldrá de Bilbao el vapor
Aya-Mendi
de 10.900 toneladas
en viaje directo para los puertos de MONTEVIDEO —: y BUENOS AIRES :—
Para carga y demás referencias dirigirse a los
Sres. Sota y Aznar
Apartado núm. 13
BILBAO

Cadenas "TITAN"

Para TODA MARCA de Autocamiones de CUALQUIER TONELAJE de acero especial, cromo - níquel garantizado.
Cadenas para Motocicletas Cadenas para Bicicletas.
Pelayo, 16, entlo.—BARCELONA.

MOTORES
de gasolina, Diesel y Semi-Diesel
PARA ACEITES PESADOS

SOCIEDAD OTTO HAFERKAMP, en C.TA
Justiniano, 12, Madrid.-Teléfono, 18-36 J. Apartado, 768